

DIRULAGUNTZA-DEIALDIAREN LABURPENA

Gizarte Zerbitzuen arloko jarduerak egiten dituzten elkarteentzako

Zarauzko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2026ko martxoaren 30eko Ebazpenaren laburpena. Ebazpen horren bidez, GIZARTE ZERBITZUEN ARLOKO JARDUERAK EGITEN DITUZTEN ELKARTEENTZAKO DIRULAGUNTZAK NORGEHIAGOKA ARAUBIDEZ EMATEKO 2026. URTEKO DEIALDIA egin zen.

(Laburpenaren testua)

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen kontsulta daiteke (<http://https://www.pap.hacienda.gob.es/bdnstrans/GE/es/index>).

Onuradunak: Irabazi-asmorik gabeko gobernuz kanpoko edozein elkarte eskatu ahal izango ditu dirulaguntza hauek; horien jarduerak bat etorriko dira oinarri hauekin, eta Zarauzko udalerrian garatuko dira.

Salbuespen gisa, udalerrarentzat interesgarriak diren jarduera sozialek ere laguntza jaso ahal izango dute, nahiz eta ez diren Zarautzen garatzen.

Helburua: gizarte zerbitzuen arloko jarduerak egiten dituzten erakunde sozialei norgehiagoka prozeduraren bidez emango zaizkien dirulaguntzak arautzea.

Elkarteen funtzionamendurako eta elkartearen jardueraren xede diren kolektiboei zuzendutako programa eta/edo zerbitzuak garatzeko emango dira dirulaguntzak. Eman ahalko dira, baita ere, Udaleko Gizarte Zerbitzuek euren jardunean antzemandako premia zehatzak konpontzeko jarduera-eremuetara zuzendutako programa edo zerbitzuak proposatzen dituzten jarduerak edo proiektuak egiteko, eta kolektibo jakin batzuen parte-hartzea eta ongizatea sustatzen dituzten jarduerak egiteko.

Oinarri arautzaileak: Gizarte Zerbitzuetako dirulaguntzak emateko oinarri espezifikoak (2026ko martxoaren 6ko GAO, 44 zk.).

Zenbatekoa: 45.000,00 €

Eskabideak aurkezteko epea: hilabeteko epea deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.

(Itxiera)

(Aplikazioak ematen du)